

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko irailak 5 · 1364 zenbakia

ARRATEKO JAIAK TRADIZIOARI EUSTEN

2025-26 IKASTURTEA

**MATRIKULA
ZABALIK**

Irailaren 26ra arte



PORTALEA – Bista Eder, 10
euskaltegia@eibar.eus



943 700 912



688 698 566



Eibarko Udala
Euskaltegia



EIBAR
Eibarren 100. urteurrena



aek
euskara praktikoa

**Euskara eroso
ikasi eta bizi**

**EIBARKO
AEK
EUSKALTEGIA**

Sostoa 1-1. solairua
943 20 13 79 / 607 534 357
eibar@aek.eus

2025-2026 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK

irailaren 30era arte

- Aurrez aurreko ikastaroak, erdi-presentzialak eta ONLINE ikastaroak.
- C2 maila prestatzeko ikastaro erdipresentziala.
- Mintzapraktika taldeak **BERRIA!**
- Barnetegiak.
- Etorri berrientzako ikastaroak (31 euro).

DIRULAGUNTZA BERRIAK:

- A1, A2 mailako ikastaro osoa: 120 euro (gainditutakoan dirua bueltatzen da).
- C1 mailako ikastaro osoa: 120 euro (16, 17, 18 urteko gazteentzat). Gainditutakoan dirua bueltatzen da.



INGELESEKO KLASEAK

2025/26 IKASTURTEA

IRAKASLE ELEBIDUNAK ETA
BERTAKOAK

KLASEAK 2 URTETIK AURRERAKO
UMEENTZAT ETA HELDUENTZAT :

- CAMBRIDGE AZTERKETEN PRESTAKETA
- HIZKETAN JARDUTEKO KLASEAK
- EMPRESENTZAKO KLASEAK
- KLASE PERTSONALIZATUAK

DESKONTUA
2º SEMEAN

INFO GEHIAGO: 691125471
INFO@ABBIEWHITEENGLISH.COM

ABBIEWHITE
english school

Instagram Facebook @ABBIEWHITEENGLISH

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Musikari bezala ezagutu dugu Jon Alonso, baina artista dela erakutsiko digu laster, letra guztiekin. Izan ere, Go!azen telesailean aktore lanetan arituko da eibartarra. Uda honetan egon da telesaia grabatzen eta laster ikusiko dugu pantailetan.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Esker ona residentziako langileei

Orain dela gutxi zendu den Adelina Lanaren familia guztiaren partez, bihotzez eskerrik asko Ego-Gain zentro gerontologikoko langile guztiei (auxiliar, erizain, mediku, garbitzaile eta kafetegikoak barne). Egon den denboran oso ondo zainduta egon da eta etxean bezala sentiarazi duzue. Azkeneko momentuetan ere familiarekiko eduki duzuen errespetua, profesionaltasuna eta maitasuna nabarmendu nahiko genituzke.

Bermarazi dezagun kalitateko zentro publikoek aurrera jarrai dezatela. Gure esku dago bertako langileak gure etxe-koak zaintzen duten eskuzabaltasunarekin zaintzea. Utzi diezaiegun libre lan egiten, beraiek baitira profesionalak. Berriz ere eskerrik asko eta besarkada bana.

Adelina Lanaren familia

Hortik esanak



Iraila hasi besterik ez da egin eta, dagoeneko, datorren urteko udari uluka ari zara. Baina izan zintzoa; zure eta nire artean, onartu: zuk ere behar duzu errutina gainean daramatzazun arduretatik, damuetatik, lotsatik, dolutik, kudeaketatik edo erabakietatik ihes egin, eta zeure buruarekin bakarka gehiegitan ez elkartzeko. Noiztik ari zara zeure buruarengandik ihesi?

MAIALEN ARTEAGA, kazetaria

Sua neguan itzaltzen da, erregaia kentzeko prebentzio-neurriekin —erregaia zuhaixka eta landare-material lehorrez osatua dago, eta erraz erretzeko prestatua—; etorkizuneko sutearen hedadura mugatuko duten suebakiekin itzaltzen da. Mendien garbiketa funtsezkoa da, are gehiago abeltzaintza estentsiboa desagertzen ari den honetan. Faxismoa ere neguan itzaltzen da, kulturarekin eta hezkuntzarekin, komunikabide konprometituekin eta gure gazteen etorkizuna ilusionatzen duen ezkerrarekin; pentsamendu kritikoarekin itzaltzen da, eta hori ez digu adimen artifizialak errazten, baizik eta liburuek eta konzeptu zahar eta berrien aztertzeak.

IÑAKI BARRUTIA ARREGI, psikologo klinikoa

Beste leku denetan bezala, irakasle on artean alper bat edo beste badago ere, gehiengoa lanerako prest dago. Bere lana ahalik eta hobekien egiteko gogoz. Arduratzen nauena da hezkuntzaren aldetik langileria hori zaintzeko eta alperrak identifikatu eta nolabait atentzioa emateko inolako moletiarik hartzen ez duela. Erremintak egon beharko lirateke, funtzionario izan edo ez, bakoitzaren lana ganoraz egiteko inolako gogorik ez dutenak baztertzeko. Baina denaren gainetik, beraien lana ongi egiteaz arduratzen direnak zaintzea bermatu beharko litzateke.

HARITZ ARABAOLAZA, irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PINTO → Nabarra, orban ilunak dituen behia, normalean esnetarakoa. Gaztelerazko ‘pinto’. “Aittitta zanak eta gure aitta zanak beti idi-gorrixak; sekula bez gallegorik eta pintorik eta holakorik, beti hemengua”.

PINTTANA → Kolore bat baino gehiago dituen animalia. Pintoa, nabarra. “Arrautzia egitten daben bakotxian, kantuan urtetzen dau gure pinttanak”.

Farmaziak

BARIXAKUA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 11
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Hildakoak

- Ignacia Atxa Gisasola. 98 urte. 2025-07-19.
- Juan Jose Agirregomezkorta Elizagirre. 93 urte. 2025-07-21.
- Mariana Maguregi Mandiola. 98 urte. 2025-07-22.
- Jose Luis Santillan Lariz. 88 urte. 2025-07-22.
- Vicente Bastida Nicolas. 75 urte. 2025-07-22.
- M^a Carmen Bueno Gisasola. 84 urte. 2025-07-23.
- Carlos Barinagarrementeria Gandiaga. 93 urte. 2025-07-23.
- Jose Luis Perez Sarasketa. 89 urte. 2025-07-23.
- Begoña Lasa Meabe. 87 urte. 2025-07-24.
- Piedad Anguera Baque. 94 urte. 2025-07-24.
- Ignacio De Luis Vizcaino. 85 urte. 2025-07-24.
- Luisa Epelde Urizar. 99 urte. 2025-07-24.
- Francisco Suarez Conde. 88 urte. 2025-07-24.
- Esperanza Agirre Gonzalez de Viñaspre. 91 urte. 2025-07-27.
- Teresa de Jesus Azpiaz Ugarteburu. 77 urte. 2025-07-27.
- Mariado Salsamendi Garin. 80 urte. 2025-07-28.
- Vicente Artetxe Ansola. 86 urte. 2025-07-29.
- Ander Martin Estenaga. 94 urte. 2025-07-29.
- Jose Julio Molano Rubio. 72 urte. 2025-07-30.
- Miguel Errekalde Treviño. 69 urte. 2025-08-1.
- Eduardo Lizarralde Lasa. 57 urte. 2025-08-2.
- Ricardo Lemos Gomez. 90 urte. 2025-08-3.
- Marcelina Iturbe Guridi. 94 urte. 2025-08-7.
- M^a Angeles Etxabarri Galdeano. 89 urte. 2025-08-8.
- Teresa Justel Carracedo. 88 urte. 2025-08-10.
- Adelina Lana Del Valle. 88 urte. 2025-08-10.
- Fabian Artaetxebarria Bilbao. 94 urte. 2025-08-11.
- Meliton Terroba Escudero. 78 urte. 2025-08-12.
- Javier Carballo Ganuza. 96 urte. 2025-08-13.
- Alfonso Parada Lopez. 73 urte. 2025-08-13.
- Enrique Arakistain Lezeta. 87 urte. 2025-08-15.
- Cresen Aristondo Amutxastegi. 81 urte. 2025-08-16.
- Rafa Lopez Saceda. 81 urte. 2025-08-18.
- Jose M^a Agirre Garitaonandia. 81 urte. 2025-08-18.
- Marina Atxotegi Aranzeta. 90 urte. 2025-08-18.
- Jose Antonio Mendikute Badiola. 84 urte. 2025-08-20.
- Jose Ignacio Rekalde Yurrita. 73 urte. 2025-08-20.
- M^a Pilar Bravo Arriola. 90 urte. 2025-08-24.
- Begoña Telleria Garitagoitia. 88 urte. 2025-08-26.
- Jose Alberto Olabe Peña. 77 urte. 2025-08-29.
- Olga Altuna Kortazar. 89 urte. 2025-08-29.
- Ilinka Sikimic. 72 urte. 2025-09-01.
- Justino Hernando San Jose. 91 urte. 2025-09-02.



Iraileko bigarren domekan ospatuko da Kofradia eta Baserritar Jubilatuen Eguna

Arrateko Amaren eguna igaro eta, hurrengo domekan (irailak 14), askorentzat jaien errepikapena den Kofradia eta Baserritar Jubilatuen Eguna ospatuko da Arraten. Simon Aldazabal XXX. lasterketarekin hasiko dira egunerako antolatu dituzten jarduerak. Parte-hartzaileak Eibarko Klub Deportibotik abiatuko dira, Orbeko bidetik Arrateraino igotzeko. Urtero bezala, 11:00etan hasiko da Meza Nagusia, Arrateko Santutegian, eta Nerea Elustondo eta Millan Telleria bertsolariak ere bertan izango dira. Jarraian, prozesioa egingo da, Usartza Txistularien Bandak lagunduta.

Paella-lehiaketan parte hartzeko aukera dago oraindik ere

Eguerdian, berriz, paella-lehiaketa egingo da, zelaian (izena emateko epea zabalik dago, irailaren 10era arte, udal-webgunean). Aldi berean, frontoian Kaelo memorialearen pilota-partidak jokatu dira (kadete eta jubenil mailakoak). Paella lehiaketako sariak, berriz,

bazkaltzeko orduan (14:00ak aldera) banatuko dituzte. Eta, aurtengo berritasun nagusia, arratsaldeko ekitaldiari eragingo dio zuzen-zuzenean. Orain arte egiten ziren idi-proben ordeaz, idi gazteen erakustadia egingo da aurten, estreinekoaz. Beraz, ez da lehiaketarik jokatuko, baina hiru idi-pare lanean ikusteko aukera egongo da berdindin. Gainera ez dute sarrerarik kobratuko.

Arrate izenekoek irailaren 21ean ospatuko dute beraien jaia

Eta hirugarren asteburuan ere jaigiroa nagusituko da Arraten, horrela deitzen diren emakumeak bertan elkartuko dira-eta, urteroko martxan beraien jaia ospatzeko. Irailaren 21ean ospatuko da jaia, eta parte hartu nahi dutenentzat hitzordua ere lotu dute: 12:30ean elkartuko dira, Arraten bertan, elizaren atarian. Urtetik urtera parte-hartzaileen kopurua aldatu arren, animatzen direnak ederto ibiltzen dira beti, eta lehen edizioa egin zela 30 urte beteko dira laster.

04485 zenbakiari egokitu zaio Chernobil Elkartearen zozketako saria

Urteak dira Ukrainan gerra hasi zela eta, han dauden haurrei laguntzeko asmoz, Chernobil Elkarteak kideak rifak saltzen aritu dira. Irabazlea aukeratzeko zozketa irailaren 1ean izan zen, eta zenbaki sariduna 04485 izan da (ONCE-ren zozketan saritutako zenbakiarekin bat). Irabazleak hiru hilabeteko epea dauka sariaz gozatzeko, eta ez da nolanahiko oparia izango. Saridunak, beste lagun batekin batera, Herederos del Marques de Riscal (Eltziego, Araba) upategira bisita egingo du, eta gainera bertako jatetxeko menuaz gozatu dute. Horrekin batera, Chernobil Elkartearen produktuen saskia ere eramango du. Zorionak!



60 urte dituztenen jairako izen-ematea ixtear dago

1965ean jaiotakoen jaia azaroaren 1ean (zapatua) ospatuko da eta, parte hartu nahi dutenek, irailaren 30era arteko epea daukate izena emateko. Horretarako 95 euro sartu beharko dituzte Banco Sabadellen, ES08 0081 4362 6900 0152 6261 kontu-zenbakian, izen-abizenak argi adierazita. Bestetik, antolatzaileek WhatsApp taldea sortu dute, jaiari buruzko informazioa emateko (bat egiteko QR kodea eskaneatu).



Jose Luis Perez Sarasketa eta Jose Ignacio Rekalde hil dira

Eibarren ez ezik, hemendik kanpora ere oso ezagunak diren bi eibartar hil dira uda honetan. Usartza Txistulari Bandaren eta Kezka eta Amalur Klub Deportiboko Dantza Taldeen sortzaileetako bat izan zen Jose Luis Perez Sarasketa uztailearen 23an hil zen. 1960. hamarkadatik aurrera pisu handia hartu zuen bere gain Perez Sarasketak, kultura eta folklore inguruko hainbat arlotan. 1936. urtean jaioa, kulturgintzako eragile nekagabea izan zen

beti, mutil koskorra zela Santa Cruz maisuaren esanetara txistua jotzen hasi zenetik. Soraluzeko Txistulari Bandako zuzendaria zela etorri zen Eibarkora, eta berehala hartu zituen karguak bertan. Amalur dantza taldean inoiz baino txistulari gehiago biltzea lortu zuen. Orain dela urte batzuk, dantza taldetik pasatutako guztien fitxak batzeari ekin zion, 1970. urtetik aurrera 2.000tik gora neska-mutil ibili zirelako bertan.

Eta abuztuaren 20an, berriz, Jose Ignacio Rekalde Yurrita mediku oftalmologo ezaguna hil zen Lekeition, 73 urterekin. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatu zen eibartarra, Santiagoko Unibertsitatean, eta ondoren Oftalmologiako espezializazioa egin zuen Compostelako Ospitale Kliniko Unibertsitarioko Eskola Profesionalean. Gainera, Osasun Zientzietako Ikerketa Aplikatuko master gisa graduatu zen, eta Biomedikuntzako eta Osasun Zientzietako doktoretza lortu zuen, biak Madrilgo Unibertsitate Europarrean. 40 urte baino gehiagoko lan-esperientziarekin, Oftalmologiaren alorrean erreferentziazko figura izatera ailegatu zen.

MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA



LARUNBATA Irailak 20

– **BIGARRREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA** eta **KONPONKETA TAILERRA**
10:00-14:00, Untzaga Plaza / Azokan parte hartzeko ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea: 943 67 02 49 / www.merkabi.eus/eibar

– **BIDE HEZKUNTZAKO HAUR ZIRKUITUA** eta **GINKANA**
17:00 – 19:30, Untzaga Plaza (euria egiten badu, Errebal Plazan)
Adina: 5 – 12 urte / Ezinbestekoa da bizikleta edota patinetak ekartzea

ASTELEHENA Irailak 22

– **AUTORIK GABEKO EGUNA**
Udaibusa dohainik



www.merkabi.eus/eibar








Mugikortasuna pertsona guztientzat



Debarrena Integra Bat Eginez Programan parte hartzeko aukera dago oraindik

2025-2026 ikasturterako Debarrena Integra programaren 20. edizioa antolatu du Armeria Eskola Elkartek, eta izena emateko epea zabalik dago, irailaren 15era arte. Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langabeak gizarteratzea eta laneratzea da programa honen helburu nagusia, eta ekimenak bi fase ditu. Lehenengoan, marrazketa eta gazte-erlاندuko dira (190 ordu inguru). Irailaren 22an hasi eta urtarrilaren 29an amaituko da fase hori. Eta, azken urteetako arrakasta ikusita, aurtan ere euskara ulertzeko 60 orduko saioak eskainiko dira, Eibarko Udalaren lankide-

tzari esker. Ahozko ulermeneari oinarritzko maila eskuratzea da asmoa. Bigarren fasean, ikasleek FMEE0108 Fabrikazio Mekanikoko Eragiketa Osagarriak Ziurtagiri Profesionala egin ahaliko dute, eta Ongizate Emozionalerako tailerra ere emango zaie. Interesa dutenek Lanbiden enplegu-eskatzailerak gisa izen-emanda egon beharko dira, nahitaez. Eta bete-beharreko beste bi baldintza daude: 16 urte beteta izatea, eta Debarrena eskualdean bizitzea. Izen-ematea 943203244 / 615 775 556 telefonoetara deituz, edo ikastaroak@armeriaeskola.eus helbidearen bitartez egin daiteke.

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta, genozidioaren kontrako burrunbak egingo dira gaur herri guztietan

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta, Palestinan egiten ari diren genozidioa geratu dezatela eskatzeko burrunbak egingo dira gaur arratsaldean Euskal Herri osoan zehar. Mobilizatzeko deiarekin bat egin nahi duten eibartarrak Untzagan elkartuko dira, 19:00etan, eta jende guztiari bertan agertzeko gonbidapen zabala egin dute arduradunek.



Behin-behineko bulegoa zabaldu du Ogasun sailak, Arraguetaoan obrak egiteko

Ogasun eta Finantza Departamentuak jakinarazi duenez Herritarren Arretarako Eibarko bulegoaren behin-behineko leku aldaketa egin dute. Horrela, Arragueta kaleko 2. zenbakian dituzten instalazioak hobetzeko lanei ekin diete, "hurbileko eta kalitatezko arreta-zerbitzua ematen jarraitzeko

helburuarekin". Hori dela eta, eta orain arte erabili duten lokala hobeitzeko lanekin amaitu bitartean, Bittor Sarasketa kaleko 7. zenbakian egongo da behin-behineko bulegoa. Abuztuaren 18an zabaldu zituzten ateak, eta orain arteko zerbitzuak emango dituzte bulego horretan ere.

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

Orain Eibarko,
Elgoibarko eta Ermuko BM-n
ere aurki gaitzakezu

• Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zalinduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA Aialtia Bailara (San Migel auzoa, 7) **ELGOIBAR 690288002** (Olaiz Txurruka Maiora)

KARTELEN LEHIAKETA



GAIA

KONTSUMOA KONTZIENTZIAREKIN KONTZIENTZIA KONTSUMOAN

Lehiaketa honek bi kartel aukeratu nahi ditu, **agroekologian** eta **kontsumo arduratsuan** oinarritutako azoka eta ekitaldiak hobekien irudikatzeko. Utzi zure azterna sortzaile eta jasangarria gure ekitaldietan!!

60€-tan balaraturiko **SARIA** Gazteen kategoria: 11 eta 15 urte bitartekoak

150 €-tan balaraturiko **SARIA** Helduen kategoria: 16 urtetik gorakoak

Animatu eta parte hartu, 2025eko irailaren 8tik 28ra, zure lana bidaliz helbide honetara: lehiaketaegoaizia@gmail.com

Irakurri
hemen
oinarriak



“Furgonetan bizi nintzenean, bizitza osoa zen show-a, baita antzokitik kanpo ere”

JULEN AXPE • Umoregilea



Alex O'Dogherty umoregileak maiatzean bakarrikzeta saioa eskaini ondoren, aste hauetan etorriko da Komedia Fest jaialdiaren mamia. Julen Axpe bizkaitarrak ‘Camino al Existo’ ikuskizuna eskainiko du hilaren 13an, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan, eta ondoren etorriko dira Jon Plazaola, Agustin Jimenez, Sara Escudero, Gorka Aguinagalde eta Carolina Noriega.

Futbolzale amorratua, Julen Axpek furgonetan hara eta hona ibiltzen hasi zuen bere bidea umoregintzan. Baina ez toki batetik bestera ibiltzeko bakarrik, furgonetan bertan eskaintzen baitzituen (eta ditu oraindik) saioak. Handik eszenatokietara egin zuen jauzi eta, bere pasioari jarraituz, DAZN katean Athletic Club-en eta Osasunaren partiduetako euskarazko esataria da, neurketak kontatzeko estilo originalarekin.

‘Camino al Existo’ da zure saioaren izenburua. Nola hasi zenuen bidea umorearen munduan?

Apur bat kasualitatez. Arraroa da txikitan esatea bakarrikzketaria edo umoregilea izan nahi duzula. Nik futbolaria izan nahi nuen, baina ez zitzaidan ondo irten, urrun geratu zen nahi hori. Hori bai, futbolak eramanez ninduen Bartzelonara, 3. mailan jokatzera joan nintzelako, eta han Arte Eszenikoak ikasteko aprobetxatu nuen. Gero, gidoigintza ikastaro baten bitartez umorearen munduan sartu nintzen eta hor bide bat ikusi nuen, gustatzen zitzaidalako, baina ez nuen pentsatzen hori egitetik biziko nintzela!

Beti eduki duzu barrea eragiteko trebezia?

Mugitua izan naiz eta katxondean ibiltzea gustatu

izan zait, baina gauza bat da hori eta beste bat profesionalki barrea eragitea. Espektatibarik ez dagoenean errazagoa da barrea eragitea, baina baten bat zu ikustera joan bada barre bila, teknika eta esperientzia behar da hori eragiteko.

Beraz, ezinbestekoa da lanketa egitea?

Bai, eta lotsa kentzea ere entrenatu egiten da. Ni neu ez naiz pertsona berdina gaur egun edo orain dela sei urte. Sasoi hartan gaur egun egiten ditudan gauzak ikusiko banitu, harritu egingo nintzateke. Orain lotsa hori galdu dut, eta maite nautenek lotsa sentitzen badute, lasai egoteko esaten diet, pozik bainago.

‘Furgonologo’ bezala hasi zenuen ibilbide umoristikoa. Nola sortu zitzazun ideia hori?

Bakarrikzketaria izan nahi nuen eta Bartzelonan furgoneta batean bizi nintzen. Etxeen alokairuak altuak dira eta arteari eskaini nahi nion bizitza, beraz, sorkuntzarako, ideiak pizteko, bizirik sentitzeko eta abar ideia ona zela pentsatu nuen. Furgonetan asko bidaiatzea gustatzen zaidanez, pentsatu nuen ondo egongo zela furgoneta antzoki bihurtzea eta herriz herri joatea. Profesioa nire bizitzarekin lotu nahi nuen. Furgoneta eta monologo hitzen batura da ‘Furgonologo’.



Julen Axpek emango dio hasiera umorez beteko den udazkenari Komedía Fest jaialdiaren barruan.

Urte asko ibili zara furgonetan. Mila pasarte bizitzeko aukera emango zizun, ezta?

Bai! Bartzelonan bizi nintzenean bideoak egiten nituen, sketch-ak... Bizitzako kontuak kontatzen nituen bertan. Bakarrizketak eskaintzeko momentuak izaten ziren nire bizitzako une normalenak, hortik kanpo furgonetan bizi nintzelako, kirola egiten nuelako dutxatu ahal izateko, edozein modutan moldatzen nintzelako arropak garbitzeko... Gauza horiek egiteko moduak bilatu behar nituen. Bizitza osoa zen show-a, baita antzokitik kanpo ere.

Furgonetako bizitza horretan gertatzen zitzaizkigun gauzak bakarrizketan gehitzen zenituen?

Bizitzako istorio horiek sketch-etan lantzen joan nintzen. Hori zen nire terapia. Emozio bat enkistatuta ez geratzeko, gidoia idazten nuen eta gero umoretik landu eta atera. Bakarrizketetan, pasarteak baino, ordua arteko ibilbidea nolakoa izan zen aipatzen nuen.

Aita izan berri zara. Furgoneta aparkatuta laga duzu?

Kustodia kenduko didate (barreak). Saioei dagokienez, udan edukitzen dut mugimendu gehien eta herri herri ibili naiz furgonetan. Orain, negua datorrela, aretoen

“Emozio bat enkistatuta ez geratzeko, gidoia idazten nuen eta gero umoretik landu eta atera, terapia bezala”

sasoia hasiko dut. Eibarren ezingo dut furgoneta eszenatokian sartu, beraz, akabo furgonetaren sasoia.

Futbolari moduan ez zenuen bidea egin ahal izan, baina bai partiduen narratzaile bezala. Nola iritsi zitzaizun hori egiteko aukera?

Hori ere kasualitatez! Toki batetik edo bestetik nire izena iritsi zitzaien DAZN-ekoei. “Hori ez dakit egiten”, pentsatu nuen eskaini zidatenean, baina bakarrizketari bezala ari nintzen, komunikatzailea nintzen moduren batean, eta nire modura egingo nuela pentsatu nuen. Umoretik komunikatzen dut eta futbola ere ikuspuntu horretatik kontatu nahi nuen. Ez naute bota,

Sarreraren deskontu kodea:
KF25ETAKITTO



beraz, nire tontokeriak ondo hartzen dituztela dirudi (barreak). Hiru denboraldi daramatzat dagoeneko. Ea Eibar Lehen Mailan ikusteko aukera dudan! Bere partiduak kontatzea gustatuko litzaidake.

Zure narrazioek zeresana eman dute originaltasu-narengatik, ezberdinak direlako.

Bai. Esan bezala, ez nator ohiko narratzaileen mundutik. Ez dakit narratzaile izateko zein bide egin behar den, kazetaria izan edo ez dakit, baina ni antzoki batean bakarrik hitz egitetik nator. Umore kutsua ematea eta bat-batekotasuna gustatzen zaizkit, beti positibismoz. Badakit jendeak futbola nola ikusten duen, baina nire ikusteko modutik saiatzan naiz partiduetan ikusten dudana igortzen.

Behintzat, neurketa gatzgabea bada, barreak ez dira falta.

Hori gustatzen zait, partiduei txispa ematea. Zorionez, Athletic-en momentu ona harrapatu dut eta Osasuna ere ondo dabil.

Futbola gustatzen zaizu eta komunikatzeko erraztasuna duzu, baina partiduak aurretik prestatu behar dituzu?

Zorionez, beti izan naiz oso futbolzalea, nahiko frikia, eta talde eta jokalarri guztiak ezagutzea gustatu izan zait. Gaur egun ere asko jarraitzen dut futbolaren egunerokoa eta, nahi barik, partidura taldeak eta jokalarriak ondo ezagututa heltzen naiz. Hortik aurrera, bi taldeen arteko aurreko lehiak nolakoak izan diren ikusten ditut, datu batzuk batu, abesti pare bat pentsatu eta aurrera.

Esan duzun bezala, sasoi ona da Athletic-zaleentzat, ezta?

Oso ona! Otxandiokoa izanik, Athletic-zaleak gara gehienok eta Athletic-en jokatzeari zen nire txikitako ametsa. Gero, Realean probak egin nituen, Alavesen jokatu nuen... baina Athletic-zalea izan naiz beti. Zaletu moduan, asko gozatzen dut bere partiduak kontatzen, baina profesionala ere izan behar naiz eta Cadizen edo Oviedoren partidu bat euskaraz kontatu beharko banu, pasio berarekin kantatuko nituzke golak.



“Umoretik komunikatzen dut eta futbola ere ikuspuntu horretatik kontatu nahi nuen. Ez naute bota, beraz, nire tontokeriak ondo hartzen dituztela dirudi”

‘Camino al Existo’-k ere Athletic-ekin lotura estua du, baina ez gaur egungo sasoi arrakastatsuko istoriekin, ezta?

Ikuskizun hau Athletic-etik eta futboletik harago doa. Porrotarekin dugun elkarbizitza, porrotari buelta nola ematen diogun... Umorearen bitartez, kontu horiek eguneroko bizitzara eramaten saiatu naiz, irakaspenak jasoz. Denok galdu dugu zerbait bizitzan zehar, futbolean zein maila pertsonalean. Begira Eibarri azken urteotan gertatu zaiona, azken momentuan mailaz ezin igota, baina hortik ere zerbait ateratzen da. Gero, garaipenak datozenean, beste modu batean bizitzen direlako. Ez da gauza bera beti irabazten duen talde bat bazara.

Jose Luis Perez Sarasketa

2025/07/23

"Lerro hauen bidez, 1960 eta 1964 inguruan jardun genuen Eibar-Plaentxi dantzari taldeko kideek omenaldi txiki bat egin nahi diogu gure taldearen sorreran eta bilakaeran bidelagun izan genuen Jose Luis Perez Sarasketa lagun maiteari. Gure errespetua, maitasuna eta miresmena merezi du, gu guztioi eta Eibarko euskal kulturari eman zigun guztiagatik. Zu gabe ere, gure urteroko otorduekin jarraituko dugu, beti maitasun handiz gogoratuz. Zure lagun dantzariak ez zaitugu inoiz ahaztuko".



Plazola 1964 - SJ0788



Iratxe Sarasketa Cofreces

25. URTEURRENA

2000-09-09

Zu barik baina gure barne.

Garena zugaitik, gure pausoak gidatzen.

Irribarre bat, argazki bat, abesti bat, pinta bat...

Beti eta betirako gurekin.

- ZURE KUADRILLA -



Jose Alberto Olave Peña

2025/08/29

Kirol eta mendizale amorratua, euskara menderatzeko izan duzun adorea, zure lagunei arreta eta laguntza eskaintzea, beti egongo dira gure oroimenean, zu zeu bezala.

- ZURE KUADRILLA -



Aitor Abanzabalegi Aranguren

22. Urteurrena

2003-07-11



Begoña Aranguren Odriozola

5. Urteurrena

2020-08-29

Egunero zaituztegu gogoan
Etxekoak beti bihotzian



Olga Altuna Cortazar

2025/08/29

"Ezin ikusi eta ezin ikutu,
baina bihotzian beti
eruango zaittugu"

- ZURE FAMILIA -

Eskerrik asko zuen
berotasuna ematera hurbildu
zareten guztioi



“Garapenerako proiektuak daude, baina ez ikuspuntu material batetik bakarrik, baita gizarte aldetik ere”

JUANKAR OLAETA ALVAREZ • Aldatze ikastetxeko zuzendaria



Joan den ikasturtea amaitzerakoan, ikasleek gelak hustu ondoren, Perura bidaiara egin zuen Egoaizia GKE-ko lagunekin batera Juankar Olaeta Alvarez Aldatze ikastetxeko zuzendariak. GKE-ak eta ikastetxeko Aldatzen boluntario-proiektuak Perun garatzen ari diren proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen eta, noski, askoz ere gauza gehiago ere.

Ekainaren 28tik uztailaren 14ra arte egon zen Olaeta Perun, eta mila gauza egiteko eta ezagutzeko aukera izan zuen. “Turismotik gutxi”, esan digunez, baina hango komunitate batzuen errealitatea ezagutzetik asko. Hezkuntza arloko gaiak landu zituzten batez ere Aldatzeko kideek eta hainbat urtetan eman den elkarlana sendotzeko balio izan zuen bidaiak.

15 egun egin zenituzten Perun, baina pentsatzen dut oso biziak izan zirela, ezta?

Egia esan, Perura joan aurretik hasi genuen bidaiara, lehenagotik prestatu genituelako planak, jarduerak eta abarrak han dauden lankideekin edo partnerrekin. Oso egutegi trinkoa zehaztu genuen. Goizeko 07:30ean martxan jartzen ginen eta 18:00 inguruan eguneko jardunarekin amaitzea zen asmoa, baina inoiz ez zen plana bete eta 20:00ak edo 21:00ak arte aritzen ginen, jarduerak luzatzen zirelako, beste proiektu batzuk ezagutzeko aukera sortzen zelako, eta abar.

Peruko hainbat tokitan ibili zineten?

Bai. Lehenik, Limara iritsi ginen hegazkinean eta iparraldera jo genuen berehala, Piura goienara. CIPCA-k (Nekazarien Ikerketa eta Sustapen Zentroa) Piura

hirian du egoitza nagusia, eta mendialdean (‘sierra’ deitzen diote eurek) dauden herri eta komunitate txikiak bisitatu genituen. Gero, Trujillora jo genuen, hegoalderantz. Handik Limara egin genuen eta gero Cuzco ingurura. Beraz, iparraldetik hegoalderaino zeharkatu genuen Peru hegazkinak, ibilbide luzeko autobusak eta 4x4 autoak hartuta.

Hainbat proiektu bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zenuten. Nolako proiektuak dira?

Lehendabizi esan behar da partzuergoan egindako lankidetzak direla eta horko burua, gehienetan, Egoaizia dela. Horrela, Lierni Fernandez eta Marta Ferre ere etorri ziren bidaiara. Horrekin batera, ikastetxean Aldatzen elkartea dugu eta proiektu txikiago batzuetan gu ere baginen buru, nahiz eta Egoaiziakoak jantziago egon. Bestalde, lehenengo astean gurekin egon ziren haurren psikologia ebolutiboan adituak diren Harremanak elkarteko bi kide, Olatz Berasategi eta Mireia Agirre. Orduan, proiektu mota ezberdinak ezagutu genituen.

Adibidez?

Piurakoei dagokienez, CIPCA-koen bitartez, hango udaletako arduradunekin, azpiegiturako ingeniariarik eta administrariarikin elkarretaratzeak izan geni-



San Juan de Bigoteko (Piura, Peru) irakasle taldearekin solasaldi dialogikoko saioa egin ostean.

tuen hemengo erakundeei esker finantzatzen diren proiektuen garapena ikusteko. Adibidez, azpiegitura kontuen jarraipena egin zen (ura lortzea eta bideratzea, kasu). Toki horietan bizi diren pertsonen bizi-kalitateko funtsezkoak diren proiektuak dira, baina dirulaguntzetan zehazten diren irizpideetan emakumeen ahalduntzea, genero berdintasuna eta estereotipoen kontrako alderdi pedagogikoa agertu behar dira beti. Horrela, komunitate bakoitzean horrelako gauzak kudeatzeko batzordeak daudenez, bertan gizonak eta emakumeak egotea bideratzea da helburuetako bat. Hemen duguna ere kontu sakona da, baina han ikusi dudaren arabera, are larriagoa da hango emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna. Beraz, badaude garapenerako kooperazio proiektuak, baina ez bakarrik ikuspuntu material batetik, baita gizarte eta hizkuntza aldetik ere.

Emakumeen aldeko lanketa horretatik nabari dira aurrerapausoak?

Emakumeek osatzen duten APPROCAP kooperatiba bisitatu genuen, kakaoaren laborantzan eta salmentan lan egiten duen kooperatiba, eta erakutsi ziguten

“Burujabeak izan behar dute eta autonomiaz funtzionatzeko moduak landu behar dituzte, eta esan digutenez kostatzen zaie zenbaitetan”

proiektua nola garatu duten dirulaguntzei eta ezagutzari esker: antolakuntza motak, produkzioa egiteko moduak, merchandisinga nola egiten duten... Oso pozik agertu ginen alde horretatik, baina Liernik esan bezala, Egoaiziaren erronka nagusia bertan beharrezkoak ez izatea da, Egoaiziaren presentzia bertan ez betikotzea. Hau da, eurak ahaldunduta, proiektuen bideragarritasuna lortzea. Burujabeak izan behar dute eta autonomiaz funtzionatzeko moduak landu behar dituzte, eta esan digutenez kostatzen zaie zenbaitetan.

Elkarriketa
osoa

Hezkuntzari lotutako proiektuetan zer lantzen duzue?

Piuran hezkuntzari lotutako bi proiektu ezagutu ditugu. Batean, lankide batek eta nik neuk eskuhartze zuzena izan genuen bi komunitatetako bi ikastetxetan, nik irakasleekin eta lankideak 15 urte inguruko ikasleekin. Solasaldi dialogikoak izan genituen eurekin. Genero estereotipoen prebentzioa, ahultzea eta eraldatzea, emakumeen berdintasuna, emakumeen kontrako sexu erasoen inguruko gaia eta abar landu nahi genituen dinamika horren bitartez.

Zertan datza solasaldi dialogikoa?

Aldez aurretik, ebidentzia zientifikoetan oinarritutako gai horien gaineko testuak aukeratzen dira eta tertulia moduko bat antolatzen da moderatzaile edo gidari batekin. Kasu horretan, lankideak eta biok testuak aukeratu eta adostu genituen hara joan baino lehenago, haiek testuak irakurri eta landu behar zituzten guk esandakoaren arabera, eta gero, hara iritsita, solasaldia eduki genuen. Oso interesgarria izan zen. Norberak bere irakurketa pertsonala egiten du. Horregatik, solasalდიotан edonork hartu dezake parte.

Zein beste proiektu ezagutu zenuten Piuran?

Hau ez bakarrik Piuran, baina baita Piuran ere: estimulazio goiztiarreko proiektuak ezagutu genituen. Beharrak eraginda, hango ortuetan (txakrak) gizonak zein emakumeek egiten dute lan eta, askotan, emakumei nolabaiteko lasaitasuna ematen die lan egiten duten bitartean, bizkarrean, euren gorputzari itsatsita, seme-alaba sentitzea. Kontua da, agian denbora gehiegiz izaten dituztela bertan (batzuetan 3 edo 4 urte bete arte) eta, gainera, euren bizkarrera begira, ez kanpoaldera, eta umeen lehen hiru urteak giltzarri dira pertsonaren garapen psikomotorrerako eta kognitiborako. Amaren bizkarrean umeek ez dituzte kognizioa eragiteko estimulurik, eta mugitu barik, ezta psikomotritziterako aukerarik ere. Horrela hiru urte emanez gero, badira gaitasun batzuk garatu gabe gelditzen direnak. Hori da diagnostikoa, baina horren aurrean zer egin? Dirulaguntzen bitartez, emakume batzuei prestakuntza ematen zaie, estimulazio goiz-



“Genero estereotipoen prebentzioa, ahultzea eta eraldatzea, emakumeen berdintasuna, emakumeen kontrako sexu erasoen inguruko gaia eta abar landu nahi genituen solasaldi dialogikoen bitartez”

tiarreko zentroak eratzen dira eta emakume hauek liberatu egiten dira, soldata kobratuz, arratsaldeetan seme-alabak hara eramateko. Horrela, han dauden bitartean aipatutako gauzak lantzen dituzte. Gainera, umeak ez dira hezitzaileekin bakarrik geratzen, gurasoak ere egoten dira (amak batez ere), seme-alabekin egiten dituzten jarduerak egiteko eta hezitzaileek eurei horren garrantzia azaltzeko. Horrela, gero jarduerak etxean egin ditzatela da asmoa.

Elkarriketa osoa: WWW.ETAKITTO.EUS

NEKANE PASTOR HIZKUNTZ AKADEMIA

Since 1977

- Klaseak 3 urtetik gorakoentzat
- Eskolarako laguntza
- Cambridge azterketak
- Summer Camp (UZTAILEAN)
- Ingalaterrara bidaiak (UZTAILEAN)
- Enpresak

laster 50 urte zuekin



Pagaegi, 8

943201393

650069674

625134161



info@idismasackanepastor.com

www.idismasackanepastor.com

"TIRO PITXOI JATETXEA" ARRATE

TERHAZA EDERRA DUTA PAREADEEXIN 943 20 88 59



MENUA ETA KARTA AUKERAN



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69



Gerritek

INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net

Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Neurrira egindako
software-aren
garapena

Marka guztietako
zerbitzu teknikoa
eta salmenta



ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus



San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

Aurten ere kartel bikaina eskainiko du Arrateko Bertso Afariak

32. edizioa indartsu dator eta bertsolari-laukote bikainaz gozatzeko aukera emango digu aurten ere. Maialen Lujanbio, Maider Arregi, Iker Zubaldia eta Andoni Egaña handiek jardungo dute Jon Mikel Mujikaren esanetara, bertan elkartuko diren bertsozaleen egarria asetzeko asmoz. 21:00etan hasiko da afaria Tiro Pitxon jatetxean eta ondoren hasiko da bertsoaia. 27 urtez Kantabria jatetxeak hartu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteko bertso-taldeak antolatutako saioa. Pandemia tarteko, 2022an egin zen estrainekoz Tiro Pitxonen eta aurten, beraz, laugarrenez hartuko du bertso-saioa. Bertsolariei dagokienez, Egaña



da beteranoena. Zarautzarra 1993. urtean egin zen lehen edizio hartan izan zen eta harrezkero ia urtero etorri izan da; Maialenek ere urte askoan jardun du Arraten. Iker Zubeldia ez hainbestetan, baina egon izan da, eta estraineko aldia izango da Maider Arregi oñatiarrarentzat.



...eta kitto! Jaia irailaren 27an ospatuko du euskara elkarteak

Ohikoa baino astebete lehenago, urriko lehen zapa-tuan baitu urtero hitzordua, ospatuko da aurtengo ...eta kitto! Jaia. Goizez eta arratsaldean izango da euskal sagardoan eta giroan murgiltzeko aukera eta jatekoa, musika, erakustaldiak edota txikieneztat jolasak ere ez dira faltako. Eta urterokoari jarraituz, zozketa egingo da, egunean bertan, 20:00etan Untzagan. Saria aurten ere ez da nolanahikoa izango: bi gauetako egonaldia Paradore batean bi lagunentzat (gosaria barne), bazkaria eta afariarekin. Zozketan parte hartzeko rifak salgai daude ...eta kitto!-n, euro baten, eta ...eta kitto!-ren jaian ere salgai egongo dira egun osoan.



Berbetan programak irailaren 23an ekingo dio ikasturteari

Euskarazko mintzapraktika-programa eta haren aldaerak prest daude ikasturte berriari ekiteko: Berbetan euskara praktikatzeko taldeak, Gurasoak Berbetan familia giroa euskalduntzeko programa eta Ongietorri harrera eta elkarbizitzarako programa ate joka ditugu. Martxan urritik aurrera jarriko badira ere, irailean izen-emateari ekingo dio ...eta kitto!-k eta horren ekitaldi nagusia irailaren 23an, martitzena, egingo da Untzagan (harmailen aldean). 18:00etan hasita, ordubetez, musikaz eta giro onez beteko du plaza DJ batek, eta tarte horretan, ...eta kitto!-ren hiru programen inguruko informazioa ematen arituko dira elkarteko arduradunak.

KITTONBOLIA

**Boletoaren
prezioa: 1 €**



Inoizko **Kittonbolarik** parte-hartzaileena badator!

Arrateko jaiekin hasten da, moduren batean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen ikasturteko jarduna. Esku artean daukazu lehenengo aldizkariarekin batera, bezperako bertso-saioarekin eta Arrate eguneko Kittonboliarekin ekiten dio elkarteak ikasturteari. **2003an antolatu zuen ...eta kitto!-k lehenengo aldiz tonbola eta orduraz geroztik Arrateetako ezinbesteko hitzordu bilakatu da.** Astelehenean goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak, betiko moduan eliza parean. Urte hauetan guztietan aldatu ez den beste kontu bat prezioa da, hasieratik baliobitu **euro bakarra boletoak**. Eta euro baten truke sari ikusgarriak irabazteko aukera: telebista, afariak, urdiazpikoa, motxilak, otarra, txuleta, opari-txartelak... **Milaka opari** daude jokoan.

Herriko elkarte, denda, taberna eta enpresen kolaborazioa ezinbestekoa da ...eta kitto!-rentzat, haien

guztien laguntzari esker antolatzen baitu tonbola. Aurten, gainera, **inoiz baino babes handiagoa sentitu eta jaso du elkarteak**, inoiz baino establezimendu, erakunde eta enpresa gehiagok egin baitu bat tonbolarekin. Kontuan izan behar dugu, ekimen honetatik lortutako dirua Eibarren euskararen alde lan egiten jarraitzeko erabiliko duela elkarteak. Urte osoko jarduna aurrera eramateko “ezinbestekoa dugu, bestela ezingo genuke Berbetan Mintzapraktika Programa, Sozializazio eta Transmisio Mintegia, bertso-paper lehiaketa, literatura lehiaketak, aldizkari hau eta sare sozialak eta beste hainbat proiektu garatu. Beraz, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu tonbolarekin kolaboratu duten guztiei, egunean bertan boletoak erostera etorriko direnak ahaztu barik”, diote elkartetik.

LAGUNTZAILEAK

- +QWAPOS TXAKUR-ILEAPAINDEGIA
- AITZIBER BADIOLA



- AKARA TABERNA
- ALBERT TABERNA
- AMAÑAKO JAIK
- ANTIXON GOZOTEGIA
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- BACOLEKU EGO-GAIN
- BACOLEKU URKIZU
- BAISI TABERNA
- BALKOI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BASO BIZIAK
- BEHEKO TOKIA URKIZU



- BOLINTXO OKINDEGIA



- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA
- CLOSET JANTZIDENDA
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL JOSTUNDEGIA
- COVIRAN
- DANDARA JANTZIDENDA
- DENETIK
- DEPOR TABERNA
- DEPOR ELKARTEA
- DIRDAL BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR IGERIXAN
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA
- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELGOKAR AUTO GARBIKETAK



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA

- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- ESKOZIA LA BRAVA
- EXCLUSIVAS JAVI



- GARBIBOX AUTO GARBIKETAK
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL BITXIAK



- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- HIRUROK ASTELENA GASTROBAR
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDATEAM
- INDUSTRIAS MAIL
- INDUSTRIAS ROSI
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KAMALA YOGA
- KANTOI GASOLINDEGIA

- KAXA



- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KILI-KLIK ARGAZKILARITZA



- KIÑU BURDINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KOMEDIA FEST
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KOSKOR TABERNA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LANDARE BELLEZA SALUDABLE
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LORADENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NHAREA MASAJEAK
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- NUVOLA JATETXEA
- OBERENA HARATEGIA

- ORBELA TABERNA



- ORIGINAL KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIAUNDI OKINDEGIA
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA
- PIRRITX ETA PORROTX
- RESIDENCE COFFE-BAR
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SHEIKO JATETXEA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE TABERNA
- TUTULO OKINDEGIA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- UNBE TABERNA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- USTEKABE TXARANGA
- XABALO
- XARE JANTZIDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA

JAI EGITARAU JAI EGITARAU JAI EGITARAU

DOMEKA 7 (Arrate bezpera)

- **12:00. Meza eta Salbea.** Jarraian, txupinazoa eta kanpai-errepika, jaien hasiera ofiziala iragartzeko. Arrateko Santutegian.
- **12:30. Herri-kirolak:** Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta “Bihurri” eta Goizeder Beltza. Enara eta Aratz haurren erakustaldia. Arrateko zelaian.
- **18:00. “Zelaian” jai elektronikoa.** Olabeiko zelaian.
- **21:00. Bertso-afaria** Tiro Pitxonen. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte.
- **22:30. Kontzertuak,** Jaixak Herrixak Herrixandako jai-batzordearen eskutik: Begibide Erromeria, Aia eta Xiberoots. Ondoren, irrintzi txapelketa eta DJ Ezker Paletaren saioa. Arrateko zelaian.



ASTELEHENA 8 (Arrate eguna)

- **10:00.** Azitainetik irten eta Arratera **igoera**, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. Salda, txorizoa eta ardoa banatuko dituzte Zesteroko iturrian Jai Batzordeak antolatutik.
- **10:00. Kittonbolia.**
- **10:30. Kalejira** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskutik.
- **11:00. Meza Nagusia** Arrateko Santutegian, Eibarko Koro Parrokialaren partaidetzarekin. Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak Arrateko Amaren ezpata-dantza egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren prozesioa Usartza Txistulari taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariak eta agintariak lagundurik.
- **12:30.** Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak Arrateko Amaren **dantzak** egingo dituzte zelaian.
- **13:30.** Jainaga eta Narbaiza **trikitilariak**, eta **bertsolarien** saioa.
- **17:00. Bertsolarien saioa.**
- **17:30. Dantza solte txapelketa.** 10 bikote onartuko dira, aldezturik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak)
- **17:00-20:00.** GARAIA Elkartearen eskutik aisialdi-eremuan **alkohol** kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kanpaina. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza
- **18:00.** Arrateko Amaren **Hiru Txirlo Saria**. Antolatzailea: Asola Berri Elkarte.
- **18:30-20:30. Dantzaldia** ZUTIK erromeria taldearekin.



Astebururako egitarau zabala antolatu du Jaixak Herrixak Herrixandakok

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaiak ospatzeko. Jai herrikoi, euskaldun, parte-hartzaile eta feministez gozatzeraz animatu dituzte herritarrek.



Irailaren 6an, zapatua, txosnen muntaiarekin hasiko dute egitaraua. Irailaren 7a, domeka, izango da egun handia. Eguerdiko ordubetetan ekingo diote jaiari, **txupinazoarekin**. Ostean, **marianitada** eta **txiste txapelketa** egingo da 13:30ean. Ordubetegiarota, 14:30ean, **kantu bazkaria** egongo da Bizimiña plataformaren eskutik. Aurten, nobedade bezala, bazkaria Hazastarrek girotua izango da. Arratsaldeko eskaintza **Elektrokela elektrotzarangarekin** hasiko da, arratsaldeko 19:00etan. Gaueko 21:30ean hasiko dira **kontzertuak**: Begibide Erromeria, Aima eta Xiberoots taldeak izango dira oholtza gainean. Kontzertuak amaitzean, **irrintzi txapelketa**ren txanda izango da. **DJ Ezker Paletak** emango dio amaiera domekako egitarauari.

Irailaren 8an, astelehena, urteroko **presoen aldeko elkarretaratzea** egingo da. Eguerdiko 12:00etan izango da hori.



Doako autobus zerbitzua



● Hilaren 7an.

Eibar-Arrate-Eibar:

17:00etatik 22:00etara, 20 minutuoro, hiru autous ibiliko dira gora eta behera. Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.

● 7tik 8rako goizaldean.

Eibar-Arrate-Eibar:

01:00etatik 08:00etara, 20 minutuoro. Autobusak Ego-Gainetik irtengo dira.

● Hilaren 8an

08:30etik 23:30era, autobusak etenik gabe ibiliko dira gora eta behera. Bete ahala Toribio Etxebarriatik abiatuko dira.



eskolara buelta?

elite

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Eskola-materiala,
papertegia, motxila,
idazmahaiak, aulkiak...

943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Musika eskaintza zabala Arraten

Aurten ere ez da musikarik faltako Arrateko jaietan. Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak eta Eibarko Udalak antolaturiko egitarauaren barnean, inguruko zein Euskal Herriko talde ezberdinak izango ditugu zelaian.

Kontzertuez gain, 'Zelaian, jai elektronikoa' antolatu du bigarren urtez Udalak Olabeko kanpan. Arratsaldeko seiretatik goizeko laurak bitarte izango da hori. Hainbat dj-k hartuko dute parte: Unai Santos b2b Julen Oru, Txima, Jon Malax, Ima, Jon Larrañaga eta Anomaliak.



XIBEROOTS

2017an Zuberoan sorturiko talde ospetsua da Xiberoots. Euskal Herria eta euskara reggaearen bidez hedatzeko asmoz abiatu zuen ibilbidea taldeak. Musikari bakoitzaren eraginari esker, musika estilo propioa lortu du taldeak. Hainbat dira ezagunak diren kantuak, 'Bizitza', 'Aska' edota 'Maule muffin', adibidez.

Begirada kritiko eta konprometitua dute euren kante-tan. Gaur egungo gizartearekin loturiko gaiak jorratzen dituzte, migrazioa, konfinamendua, politikariak edota preso politikoak, esaterako. Begiak zabaltu eta bihotzak piztu nahi ditu Xiberoots taldeak, kultura ospatu eta sekula besoak apaldu gabe.

Erritmo dantzagarritz beteriko hirugarren diskoa kaleratu dute berriki: "Zer agituko". "Bihotzeko oihu bat" da hirugarren diskoa, "bizitzaren, erresistentziaren eta esperantzaren goraiatzeko bat".



ELEKTROKELA

Herri ekimen batetik sortu zen Altsasuko elektrotxaranga da Elektrokela. Behin herriko festetan jotzeko hainbat musikari elkartu ostean, horietako batzuek proiektuarekin aurrera egiteko asmoa izan zuten. 2020ko udan hasi ziren 'Elektrokela elektrotxaranga' izenpean kalerik kale giro ona zabaltzen. Ordutik bost urte daramatzate jotzen. Gaur egun Altsasuko, Bakai-kuko, Etxarriko eta Lakuntzako bederatzi musikarik osatzen dute taldea: Ekain Alegre (gitarra), Luken Goikoetxea (Baxua), Amaiur Goikoetxea (ahotsa), Jesus Palop (ahotsa), Iruñe Guinea (saxofoia), Xabi Zubieta (tronboia), Iñaki Cerezo (trompeta), Oihan Goikoetxea (bonboa) eta Hodei Alegre (kaxa eta txapak).



BEGIBIDE ERROMERIA

Azken urrian sortutako talde ermuarra da Begibide. Musika eskolan jaio zen bost lagunek osatutako taldea. Bertan entsaiatu eta abestiak egiten zituzten, ondoren eskolako ekitaldietan abesteko. Urrian eman zuten erromeria sortzeko pausoa eta martxoan lehenengo kontzertua. Ordutik hainbat kontzertu eman dituzte. Erromeriaz gain, akustikoak ere eskaintzen dituzte. Talde berria bada ere, gutxinaka gutxinaka hazten dabilzala diote, gauza berriak sartzen eta publikoa irabazten. Honakoak dira taldeko kideak: Iraia Sarasua (gitarra eta ahotsa), Ekaitz Prieto (ahotsa, bibolina eta trikitia), Gorane Sampedro (gitarra), Maria Vivian (baxua) eta Jokin Lugarizaristi (bateria).

Link Idiomas
www.linkidiomas.com
Juan Gisasola, 5
943 20 39 59

MEMBER OF CAMBRIDGE ESOL CENTRE ES438

-INGELES- KLASAK GOIZ ETA ARRATSALEZ

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA

ERREKUPRAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETARAKO PRESTAKETA
MAILA GUZTIAK

Cambridge English Language Assessment
Exam Preparation Centre

ALTE

MATRIKULA Adolfo JAINAGA
Urki, 25 - 1. ezk.
943 20 62 66
676 72 95 51

Trikitixa eta Pandero Eskola



“Ohorea da Arraten gurekin kontatu izana”

PEIO LOPEZ • AIAMA taldea



2021. urteko amaieran sortu zen Aiama taldea, Ermuan. 2024an kaleratu zuten bost kantuz osaturiko lehendabiziko EPA: ‘Altxatu dezagun ahotsa’. Tarte bat hartu ostean, eraberrituta ekin diote bideari aurre. Kide berriak sartu dira eta disko bat kaleratu dute: ‘Amodioz eta indarrez’. Arrateko jaietan joko dute.

Arrateko jaietan izango zarate jotzen as-teburuan. Zer moduz zaudete? Gogotsu?

Bai, egia esanda azkeneko kontzertua Ermuan eman genuen Santixauetan. Hori uztailean izan zen; beraz, berriro ere martxan hasteko gogoz gabiltza. Ermuarrak izanik ere askotan igo izan gara Arrateko jaietara eta bertan jotzeak nolabaiteko inbidia sortzen du. Guretzako ohorea edo plazera da Arrateko jaietan gurekin kontatu izana.

Nondik dator taldearen izena?

Ez du misterio handirik. 2021ean taldea sortzean taldekideok askotan esaten genuen esaldia zen.

Nortzuk osatzen duzue taldea?

Gaur egun bost kide gara: Andoni Arregi (abeslaria), Ian Ogiza (gitarra), Martzel Ugena (baxua), Oier Araiztegi (bateria) eta ni, Peio Lopez (gitarra).

Indarberrituta aurkeztuko zarete Arratera.

Bai, uztailean kaleratu genuen ‘Amodioz eta indarrez’ disko berria. Ermuan Santixauetan aurkeztu genuen, txosnagunean. Ez zen aurkezpen ofiziala izan, disko berriarekin egiten genuen bigarren kontzertua izan zen.

Punk-Oi! estiloak beti izan du izaera erreibindikatibo eta herrikoi bat. Zuen kasuan, zein mezu edo gai lantzen dituzue?

Diskoan gaur egun gazteen burutik pasa daitezkeen zenbait gai landu nahi izan ditugu. Esaterako, badaude abesti erromantiko gisa deskribatu ditzakegun hainbat kanta. Bestalde, badaude egungo estatu eta polizia indarkeriaren inguruko beste batzuk. Aberriaz ere hitz egin dugu. Herri zapaldu bat garen heinean, frantziar zein espainiar estatuak eragiten diguten asimilazioari aurre egin nahi diegu eta, bide batez, musikarekin herritarren kontzientzia piztu. Euskal Herrian bizi garela aldarrikatu nahi dugu ‘Askatasun olerkiak’ abestian. Batez ere hori, gaur egungo langile klasekoak garen gazteok pairatzen ditugun biolentziaren ingurukoak landu ditugu.

Aurrera begira, zein da zuen hurrengo erronka?

Ez dugu erronka edo helburu finkorik. Hala ere, egia da ahalik eta kontzertu gehien ematea edo gure musika ahalik eta jende gehienak ezagutzea gustatuko litzazukeela. Gure diskoak atera, jendeak gure taldea ezagutzea, gaztetxeetan eta herriko festetan jotzea... Hori da nahi duguna.

Zer esango zeniekete aldizkaria irakurtzen dabil-tzan herritarrei?

Lotsarik ez dugun bost gazte gara, ondo pasatzeko elkartzeko garenak. Giro ona sortzen ibiliko gara Arra-ten eta, hortaz, gure kontzertura etortzera animatu!

“Go!azen telesailen parte hartzea oso aberasgarria izan da niretzat”

JON ALONSO • Artista



Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute ‘Go!azen 12’-ren lehen atala. Aktore berrien artean da Jon Alonso eibartarra: Roke izango da, Basakabiko ikasle berria. Laster izango da ikusgai ETBn edo Makusi plataforman. Esperientzia oso aberasgarria izan dela dio Alonsok.

Artista gisa definitzen da Jon Alonso, 22 urteko eibartarra. Makina bat lan egin ditu azken urtean abeslari bezala: ETB-ko ‘Ztanda’ saioa, ‘ODE’ taldea, apirilean bakarka Coliseon egin zuen ikuskizuna... Orain beste-lako disziplina batera egin du salto. ETB-ko ‘Go!azen’ telesailaren 12. denboraldian aktore gisa estreinatuko da. ‘Roke’ izango da, Basakabira doan ikasle berria. Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute denboraldi berria, irailaren 24an eta 26an.

Nola definitzen duzu zure burua?

Artista naiz. Ez diot inoiz nire buruari abeslari, dantzari edo antzezle deitu. “Artista” hitzak jasotzen ditu gustatzen zaizkidan eremu horiek, lehen hobby-ak zirenak eta denborarekin nahiko profesionalizatu ditudanak.

Lanean igaro duzu uda, ezta?

Orain dela lau bat hilabete casting prozesu batean sartu nintzen. ETBren ‘Ztanda’ programak erakusleihopotoloa eman zidan eta aldi berean hainbat proiektu ezagutzeko aukera izan nuen. Proiektu horien artean,

‘Go!azen 12’ telesailen aktore gisa parte hartzeko casting-erako izen-ematea zabaldu zen. Zalantzarik gabe, izena eman nuen. Hasieratik esan zidaten bazutela pertsonaia bat fisikoki nire itxurara egokitzen zena eta trama polita zuena. Gauzak horrela, castinga aurrera eraman eta maiatzaren bukaera eta ekaina hasiera artean barruan nengoela esan zidaten: Roke izango nintzen ‘Go!azen’ telesailaren 12. denboraldian.

Nola jaso zenuen berria? Sorpresa handia hartu zenuen?

Bai, kristona! Telefonoz deitu zidaten. Uste dut autoan nindoala berria eman zidatenean. Susto handia hartu nuen. Egia da casting prozesuan beldur hori banuela. Hau da, gogoan nuen sartu eta aktore gisa estreinatzeko. Ilusio handia egin zidan, nola ez. Baina modu berean banekien bertan sartzea ardura handia zela eta lan formal bat zela. Eibarren beti ibili gara koruan Elena Martinekin emanaldi edo ekitaldiak egiten, baina pantailarako salto profesional horrek edo zeozer “potoloa” hartzeak errespetua ematen zidan.

Abeslari izatetik antzerkigintzara egin duzu salto. Zer dela eta?



Eibarko Koro Gaztean abesteaz gain, musikalak edo antzerkiak ere egin izan ditugu. 'La Red Teatro'-ko kide diren Maite Lorenzo eta Juanma Canorekin batera, esaterako. Gainera, Eibarko Antzerki Labo-rategian ere ibili nintzen orain dela pare bat urte.

Antzerkigintza ofizio bilakatu nahiko zenuke?

Nire ametsa ez da soilik antzerkigintzatik bizitzea; nire ametsa artista esparruak jasotzen duen mundu guzti horretatik bizitzea izango litzateke. Beraz, etor daitekeenari irekita nago.

Zer izan da zuretzat antzerkigintzan murgiltzea?

Asko ikasi dut. Oso emankorra eta aberasgarria izan da. Behin barruan egonda, lehenengo gidoiak jasotzen hasi nintzen. Aurretik gidoi mota baten perspektiba nuen, antzerki edo musikal batena, alegia. Telesailko gidoiak erabat ezberdinak dira. Kasu honetan gainera, ez da gidoi bakarra. Telesailak 12 atal dauzka eta atal bakoitzean gauza asko kontatzen dira. Bari-xakuero ordubeteko kapitulu bat emititzeko gauzak asko konprimitu behar dira. Orduan, hasieratik ikasketa-prozesu potolo bat izan dut. Hasieratik esaten

nuen: "Zer dago nire esku? Zer dakit nik egiten gero lasaiago sentiaraziko didana?". Argi nuen erantzuna: gidoiak ondo ikastea, pertsonaia ondo eraikitzea... Eta, nola ez, zuzendari eta lankideen laguntza handia izan dut horretarako.

Denboraldi berriaren inguruko aurrerapenik bai?

Gutxi kontatu dezaket. Aurrestreinaldia aste batzuk barru izango da Donostiako Zinemaldian, Belodromoan. Bi saio egingo ditugu, irailaren 24an eta 26an. Spoilerrik egin gabe azalduko dizuet. Nire pertsonaia 'Roke' deitzen den mutil gaztea da. Basakabiko udalekuko ikasle bilakatuko da bere lagun mina den 'Azpi'-rekin (Yan Pinto). Bien arteko harremana bitxia da. Lagun minak dira, baina bakoitzak oso izaera desberdina dauka. Roke lehenengo itxuran edo izaeran nahiko "fuertea" da eta beldurra sortu dezake ingurukoengan. Baina jendea ezagutzen duen heinean, bere bihotza biguntzen doa eta bere beldur denak uxatzen doaz. Oso trama pertsonal polita du. Gustatuko zaizuela uste dut.

Sorpresarik izango dugu?



**“Hasieratik esaten nuen:
Zer dago nire esku? Zer dakit
nik egiten gero lasaiago
sentiaraziko didana?”**

**“Badago zerbait Roke horrelakoa
izatea eragiten duena.
Telesaila ikusi beharko duzue
deskubritzeko”**

Badago sorpresa bat: badago zerbait Roke horrelakoa izatea eragiten duena. Telesaila ikusi beharko duzue deskubritzeko.

Telesailari esker, aktoreen agentzia batean sartu zara orain.

‘Go!azen’ izena duen telesaila da Euskal Herrian. ‘Ztanda’ eta ‘Go!azen’ erakusleiko bezala ikusten ditut. Proiektu batek beste bat ekartzen duela uste dut. Ezezaguna izatetik telebistara salto egitea erakusleiko handia da. Telebistan agertzen zarenean zuzendariak, gidoilariak... mundu honetan dabilzanek ikusten zaituzte, eta, agian proiekturen baterako aukera modura ikusi zaitzakete. Beraz, aktore lana egitea tokatzen da: casting-ak egin, ezezkoak eta baiezkokoak jaso... Normalean baiezkokoak gutxi izaten dira. Baina bai, probak egin eta probak egin. Eta beretik, aktore berria baldin bazara edo mundu hau gutxi ezagutzen baduzu, bidelagun den agente edo ordezkari baten laguntza izatea ezinbestetako da. Azkenean, mundu honen alde onak eta txarrak ezagutzen laguntzen dizute.

Aurrera begira, zer duzu eskuartean?

Bere momentuan enpresagintza gradua ikasi nuen eta orain enpresa batean nago lanean. Momentu honetan enpresagintza eta artista munduak uztartzen ari naiz. Ez dakit zer etorriko den etorkizunean. Espero dut -kudeaketa on batekin, noski- nire bizitza nahiko eroso izatea eta gauza gutxiri ezetz esateko aukera izatea. Hori bai, beldurra ematen dit gauzak ez disfrutatzera heltzeak edo nire ehuneko ehuna horretan guztian ez emateak. Gauzak ondo egitea gustatzen zait, eta bestela ez dira egiten. Denera iritsi eta ongi egiteko gai naizela uste dut, eta hori frogatu nahiko nuke.

Baduzu proiekturik bistan?

Ez, momentuz. ‘Go!azen’-en grabaketak amaitu ditugu, eta kontzertu-bira mahai gainean dago. Datorren guztiari irekita nago, beraz.



Hasi da denboraldia SD Eibar-en bi talde nagusientzat

Gizonezkoen lehen taldeak Hypermotion Ligako hiru jardunaldi jokatu ditu dagoeneko eta 11. postuan dago 4 punturekin, garaipen, berdinketa eta porrot bana eskuratuta. Beñat San Joseren mutilek irudi ona laga dute partidu guztietan, baina emaitzek agintzen dute eta azkenekoak min handia eragin zuten eibarzaleengan.

SD Eibarrek Huescako Alcoraz zelaian jokatu zuen astelehenean eta azken jokaldian jaso zuen porrotaren gola. Eta are mingarriagoa izateko, gainera, Sergi Enrich Eibarko jokalaria ohiak sartu zuen gol hori, neurketa 2-1 amaitu zelarik.

Aragoiarren lehen gola ere beste aurpegi ezagun batek sartu zuen, iaz Eibarren aritu zen Alvaro Carrillok, pasea iragan armagina izan zuen beste jokalaria batek emanda, Oscar Sielvak. Amesgaiztoa Eibarren ibili ziren jokalariekin.

Kontrara, une hunkigarri eta ilusionagarria ere bizi izan zuen Eibarrek, Jon Magunazelaia eibartarrak lortu zuelako berdinketaren gola.

Eibarrek astelehenean kendu ahal izango du Huescako partiduak lagatako aho zapore txarra, Andorra jasoko baitu Ipuruan, 20:30ean.

Euskal Herria Kopa irabazita

Emakumezkoen lehen taldeak domeka eguerdian hasi zuen F Ligako denboraldi berria, porrotarekin hasi ere, baina denboraldi aurrean titulu bat eskuratu zuen: Euskal Herria Kopa. Finalerdietan Athletic-i gailendu ondoren, Reala izan zuten arerio finalean eta Malen Urangaren golari esker lortu zuen garaipena talde gorriurdinak.

Joan den domekako partiduan, Eibarrek ezin izan zuen punturik eskuratu Sevillaren aurka. Rosa Marquezek 26. minutuan sartu zuen andaluziarren gola, azken urteetan Eibarren aritu zen Andrea Alvarez gaitemalarraren pasea jaso ondoren, eta Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak ez zuen jakin markagailuari buelta ematen.

Aldaketa asko egon dira Eibarko taldean. Jokalari asko joan dira eta berriak etorri (Opa Clement Tanzaniako aurrelaria izan da azken fitxaketa), eta entrenatzaile berriarekin (Iñaki Goikoetxeak hartu du Yera Martinen tokia), oraindik muntatze lanetan ari dira.

Hurrengo partidua Madrid CFF-ren aurka jokatuko dute zapatuan, 18:00etan, Fernando Torres zelaian.



Astarloa da ETR-ren entrenatzaile berria

Elgoibarren jaio eta Elorrión hazi den Oskar Astarloa izango da emakumezkoen Ohorezko B Mailan jokatuko duen Eibar Rugby Taldearen entrenatzaile berria. Astarloak oso ibilbide arrakastatsua izan du jokalaria bezala, Frantziako Top 16

ligan jokatuz (Aviron Bayonnaisen) eta baita Getxo, Ordizia, Bera Bera eta Hernani moduko talde indartsuetan ere, eta 18 urtez azpiko Espainiako eta Euskadiko selekzioetan entrenatzailea izan da. Gorka Igartiburu izango du laguntzaile.



Deporreko eta Morkaikoko 21 mendizale Pirinioetan ibili dira udan

Uztailaren 25etik 27ra Eibarko Klub Depotiboak eta Morkaikoko Mendizale Elkartek antolatutako mendi irteeran 21 mendizale elkar-tu ziren Pirinioak helburu zutela. Bertan, Aran eta Luchon bailarak zeharkatu zituzten, giro bikainarekin. “Eguraldi aldetik, oso tenperatura aproposa mendian ibiltzeko”, esan digute Deporrekoek.

Uztaileko 25eko etapan Porthilon -Tuc dera Escaleta eta Benasqueko aterpearen arteko ibilbidea egin zuten, 16 km-ko luzeera eta 1.620 metroko igoera metatuarekin. Luchon bailaran sartuta, Madaleta mendizerraren paisaia ikusteko aukera eman zuen jarduera horrek. Lo Benasqueko aterpean egin zuten, Boumsecou lau lakuen artean.

Hurrengo egunean Benasqueko aterpetik Maupaseeko aterpera jo zuten, 12,6 km-ko ibilaldia eginez (1.620 metroko igoera metatuarekin). Glereko zirkua, Bouneu harana eta Charles, Celinda edo Bleu lakuak ikusteko aukera izan zuten.

Azkeneko egunean, Maupaseko aterpetik abiatuta, Pic de Maupas (3.109 m) - Valée de Lys zeharkaldia

egin zuten. Maupas mendia, 3.109 metrokoa, txangoaren tontor altuena izan zen eta talde osoak lortu zuen goraino igotzea.

Hiru eguneko txango horrekin, “oso aho-zapore onarekin” amaitu zuten Deporreko mendi taldearen egutegiaren lehen zatia eta, orain, hilaren 27an itzuliko dira jardunera Berastegi, Erroizpe (804 m) eta Lizartza artean egingo duten ibilaldiarekin.

Bide garbiketa eta markaketa

2024an egin bezala, Eibarko Udarekin hitzarmena sinatu du Eibarko Klub Deportiboak eta inguruko mendietako bideak garbitzeko konpromisoa hartu du klubak.

Hori horrela, udan Eibar inguruko hainbat bide garbitu dituzte: Urkorako igoera, Urkoko “barrankoko” pasabidea, Illordo, Topinburu eta Galdaramiñorako igoerak, etabar.

Gainera, oraingoan, Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin batera, bideetan posteak eta seinaleak jarri dituzte bideok nora joateko diren azaltzeko.

Zilarrezko hiru domina Paula Calvorentzat

Eibar Igerixan taldeko Paula Calvo Castellón jokatu zen Espainiako Junior Txapelketan aritu zen uztailearen 24tik 28ra. Igerilariak maila bikaina erakutsi zuen eta zilarrezko hiru domina ekarri zituen etxera, 100 eta 200 metro bizkarretan eta 200 metro libretan bigarren postua eskuratu ondoren, bere mailan estatuko igerilaririk onenetakoa dela erakutsiz.

Calvo, gainera, beste bi probatan aritu zen, 50 metro bizkarrean laugarren eta 400 metro libreetan zazpigarren postuetan sailkatuz.

Abuztuaren atsedena hartu ondoren, Eibar Igerixanekoak hilaren 10ean itzuliko dira entrenamenduetara, “energia berrituekin eta helburu berrieekin”, euren berbetan.



Euskal Kopako asteburua eskubaloit taldeentzat

Eibar Eskubaloiko talde nagusiek Euskal Kopako partiduak jokatu dituzte asteburuan. Neskek Urdañetaren aurka jokatu dute domekan eta mutilek Zarautz jasoko dute zapatuan.



Debabarreneko begirale ikastarorako bigarren taldea osatzeko bidean dira

Joan den ikasturtean begirale ikastaroak izandako arrakasta ikusita, Debabarreneko Udalek berriro ere antolatu dute 2025-26 ikasturterako, eta jada osatu dute lehen taldea. Ikastaroak piztu duen interesa ikusita, bailarako Udalak bigarren talde hori osatzeko ahaleginetan ari dira orain. Irailaren 19ra arte dago izena emateko aukera, eta informazio gehiagorako zein izena emateko inprimakia betetzeko, www.akebai.eus webgunera jo daiteke.



Idazlearekin Harixa Emoten irakurketa kluba bueltan da

Zabaldutako Idazlearekin Harixa Emoten helduen-etzako euskarazko irakurketa klubarako aurrematrikulazioa (irailaren 14ra arte). 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena, eta hilean behin Portalean egingo diren saioetan idazleek hartuko dute parte, irakurleekin beraien lanei buruz aritzeko. Aurreko ikasturtean bezala, dinamizatzailea Ainhoa Aldazabal Gallastegi izango da. Doako jarduerak da, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatutakoa.



Espainiako abangoardiako idazleei buruz arituko dira Andretxeko literatur saioetan

Espainiako abangoardia literaturako hainbat egile protagonista izango dituen saio horietarako aurrematrikula zabalik dago (irailaren 23ra arte), eta izena emateko Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen online inprimakia bete behar da (Andretxean aurrez aurre bete ahaliko da). Ainhoa Aldazabal Gallastegi (Skolastika) izango da dinamizatzailea, eta azaldu duenez, “estatu espainiarrak XX. mendearen hasieratik 1936ko Gerra Zibilera arte (Errepublikatik igarota) bizi izan zuen abangoardia-garaia aztertu eta irakurriko dugu. Rosalia de Castro, Concepcion Arenal eta Emilia Pardo Bazan idazleen lanak ezagutuko ditugu, besteak beste. Beti bezala, literatura-kritika feminista erabiliko dugu testu bateratuak aztertu eta komentatzeko”.

Eibarko egoitzan ekingo dio UEU-k ikasturte berriari

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ikasturte berria Eibarren hasiko da. Markeskua jauregian izango da 2025/2026 ikasturtearen hasiera-ekitaldia, irailaren 18an, 18:00etan. Sarrerako hitzaldiaren izenburua “Emazteak Zuberoako plaza ekitaldietan, kultura bizitzen eta ikertzen” da, eta Joana Etxartek, Xantiana Etxebestek, Ihitz Iriart Casenavek eta Aitzpea Leizaola Egañak emango dute. Informazio gehiagorako: komunikazioa@ueu.eus.





Aurkitu 10 DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOAK

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			8			1		
3	9	8				2	4	
4				9		8		
9	2			7		5		
		3				9		
		5		4			8	2
		7		5				1
	4	9				3	5	7
		1			2			

5	9	2	1	3	4	6	7	8
4	1	8	9	6	3	7	2	5
6	2	3	4	5	7	8	9	1
7	3	4	5	6	7	8	9	1
8	4	5	6	7	8	9	1	2
9	5	6	7	8	9	1	2	3
1	6	7	8	9	1	2	3	4
2	7	8	9	1	2	3	4	5
3	8	9	1	2	3	4	5	6

soluzioa

SUDOKU

5	9	2	1	3	4	6	7	8
4	1	8	9	6	3	7	2	5
6	2	3	4	5	7	8	9	1
7	3	4	5	6	7	8	9	1
8	4	5	6	7	8	9	1	2
9	5	6	7	8	9	1	2	3
1	6	7	8	9	1	2	3	4
2	7	8	9	1	2	3	4	5
3	8	9	1	2	3	4	5	6

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

						4	8	
5				6		9		
	8		2		3			
		1	4		9	2		
	4						1	
		5	1		8	6		
			6		7		3	
		9		8				6
1	7							

Arrate Viteri Garai

1. URTEURRENA

2024/08/25

Sekretutxo bat esango dizugu,
bihotzean gorde dezazun zuk:
Zenbat maite zaitugun, amatxo!



Manu Fernandez Goikoetxea

11. URTEURRENA

2014/08/04

"Ez egin negarrik
amaitu delako;
irribarre egin
bizi izan dugulako"

- ZURE KUADRILLA -



Teresa Justel Carracedo

(Angel Monederoren alarguna)

2025/08/10

"Teresa, bizitza
luzea alaitasunez eta
eskuzabaltasunez
ibilia.
Maite zaitugu eta beti
gurekin egongo zara"

ETXEKOAK



Adelina Lana Del Valle

2025/08/10

Zure umore ona eta
txisteak betirako
geratuko dira
gurekin. Eskerrik
asko ama, amama,
birramama gutaz ez
ahazteagatik.

- ZURE FAMILIA -



Mari Nieves Retolaza

2025/07/13

"Beti miretsi izan dugu
zure sendotasuna eta
sosegua. Ez zaitugu
sekula ahaztuko"

ZURE LAGUNAK: Angeli,
Blanqui, Eli, Marian, Mari
Carmen(+), Marivi, Puri,
Rosi eta Tere



Miguel Angel Gonzalez Alonso

2025/07/26

Uztailaren 26an joan
zinen eta orain, zure
urtebetetze triste honetan,
Arrateko Ama Birjinak
lagun zaitzala bidaia
honetan eta zure poza
eraman dezala zauden
lekura. Horrenbeste
maite zaituen familia
nahigabetuak ez zaitu
inoiz ahaztuko.



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 6an: 19:45, 22:30
- 7an: 20:00
- 8an: 19:30

“Dangerous animals”
TERROREA. THRILLERRA



2025 / Australia / 98’
Zuzendaria: Sean Byrne
Aktoreak: Hassie Harrison, Josh
Heuston, Jal Courtney
Marrazoak / Serie-hiltzaileak

2 ARETOA

- 6an: 17:00, 19:45, 22:30
- 7an: 17:00, 20:00
- 8an: 19:30

“Sin cobertura”
KOMEDIA



2025 / Espainia / 95’
Zuzendaria: Mar Olid
Aktoreak: Alejandra Jimenez,
Ernesto Sevilla, Luna Fulgencio
Erdi Aroa / Bidaia

ANTZOKIA

- 6an: 17:00 (1 Ar), 19:45, 22:30
- 7an: 17:00 (1 Ar), 20:00
- 8an: 19:30

“Karate Kids Legends”
AKZIOA



2025 / AEB / 95’
Zuzendaria: Jonathan Entwistle
Aktoreak: Ben Bang, Jackie
Chan, Ralph Macchio
Drama / Komedia / Karatea

ANTZOKIA

- 6an: 17:00
- 7an: 17:00

“Pitufos”
ANIMAZIOA



2025 / AEB / 92’
Zuzendaria: C.Miller, M.Landon
Musikala / Familiarra / Fantasia

• EGUNEKO MENUA
asteheneretik ostiralera
13:00etatik 15:00etara

• ASTEBURUETAN
razioak, otartekoak,
plater konbinatuak...

• GOSARIAK egunero

• TALDEENTZAKO
menuak egiten dira

DEPOR TABERNA
I. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporcibar.com

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar:
Oizola, 27

Elbarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ernuako bulegoa:
Marques de Valdespina, 16

Elbar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak JULEN!
Domekan 6 urte edarrak zure onduan! Amatxo, aitatxo eta Malenek asko maite zaittugu! Oso ondo pasau!!



Zorionak IAN!
Etxeko gizontxoak 7 urte bete zittuan abuztuaren 27an. Famelixa guztiaren partez, asko maite zaittugu!!!



Zorionak M FRAN!
Uztailaren 22an zure urtebetetzia izan zan. Asko maite zaittugu, batez be Mateok eta Vegak.



Zorionak LEA!
Abuztuaren 6xan 5 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure ahizpa Jareren partez.



Zorionak IXONE!
Domekan 13 urte beteko dozuz eta. Famelixa guztiaren partetik. Infinito maitte zaittugu!



Zorionak GARA!
Abuztuaren 21ian 5 urte egin zenduaz. Jarraitu hain maitagarria izaten, Musu potolo pila bat etxekoan partez.



Zorionak ALAITZ!
Abuztuaren 14an 13 urte bete zenduaz eta. Musu pilla bat famelixa guztiaren eta, batez be, Gaizka, Noa eta Lukaren partez.



Zorionak LUKA!
Abuztuaren 27an 2 urte! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta bereziki Noa, Alaitz eta Gaizkaren partez.



Zorionak HUMBERTO!
Uztailaren 23an 4 urte bete zenduaz eta. Eibarko famelixaren partez.



Zorionak MATEO!
Irailaren 7an 5 urte beteko dozuz. Segi hain alai izaten. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, batez be Vegak.



Zorionak ANE!
Abuztuaren 29an 9 urte bete zenduaz. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak NAIA!
Abuztuaren 19an 9 urte bete zenduaz eta. Musu handia Eibarko famelixaren partez.



Zorionak OSKITZ!
Zure zortzigarren urtebetetzian. Zure guraso, aitxita-amama eta, jakina, izebaren partetik. Asko maite zaittugu!



Zorionak HAIZEA!
Zure zortzigarren urtebetetzian. Asko maite zaittugu! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Izaroren partez.



Zorionak PABLO!
Martitzenian 5 urte egingo dozuz, Zoragarria zara! Patxo haundia etxekuen eta, batez be, Lucia zure arrebaren partez.



Zorionak MANEX (abuztuaren 8xan 12 urte) eta amatxo **SUSANA** (uztailaren 23an), urtiak egin dittuzue eta. Musu haundi bana!



Abuztuan gure etxeko hirukoteak urtiak bete dittu: **OIER** (37), **UNAI** (5) eta **ARATZ** (2). Zorion pillo bat famelixa guztiaren partez. Patxo pillo bat.



Zorionak AMETS!
Eguenian 5 urte bete dozuz, zelan ari zaren hazten! Segi alai eta jostari, etxeko erregea! Pillua maite zaittugu!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskakerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
• Baserria salgai Itziarko Endoia auzoan. 330 m². Oso ondo komunikatuta. Bista paregabeak. 632252602.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
• Honda cb600f (Hornet) moto-rra salgai. 600ekoa den arren 35 kwra mugatuta dago. 1999koa, 69.000km. Egoera ezinhobean eta ITV egunean. 2.000 euro. 688857786. Jon.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko (baita ospitaletan ere). Interna. Ziurtagiriarekin. 632768653
• Emakume euskalduna eskaintzen da, arratsalde, umiak edo nagusiak zaintzeko. 665733162.
• Emakumea eskaintzen da nagusien zaintza lanetarako, esperientzia eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 638 41 31 58
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 672827386.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Erreferentziak. 613287661.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631418130.
•

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna. 687408348.
 - Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 672965658
- | |
|--|
| 4.2. Langile bila |
| • Euskaraz hitz egiten duen emakumea hartuko genuke 2025-26 ikasturterako, goizeetan alabak prestatu eta ikastolara eramateko. 667942392. |
| • Emakumea behar da nagusia zaintzeko Donostian. Interna. Astelehenetik zapatu eguerdira. Abuztuan hasteko. 640795297. |
| • Pertsona behar da irailetik aurrera goizetik bi hurrei prestatzen lagundu eta eskolara eramateko. Euskaraz jakitea baloratuko da. ihintzasa@yahoo.es |
| • Emakumea hartuko genuke nagusia zaintzeko. Interna. 688611124. Raquel. |
| • Eibarko erdiguneko tabernan eskarmentudun zerbitzaria hartuko genuke. 943558728. |

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikeneko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.
• Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko lituzke. 615701749.
• LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.2. Eman
• Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugulako zaindu. Spaniel bretainiar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051.



RAFAEL LAPEYRA, S.L.

LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HAUNDIKO HARIAK
BULOI ETA TORLOJUAK
HUSILO ETA AZKONAK



Erisono Industrialdea, 3 – 20600 – EIBAR

Tfnoa. 943 121 308 - 943 121 312

www.rlapeyra.com

 **Neinor** HOMES

• **ARRATE HOMES** •

Eibarko zure etxebizitza berriak

SARIA DU!



Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,

▶ **3.000€**-ko

El Corte Inglés-eko opari-bartela emango dizugu

*Gehi 0,0001 euro bakoitza

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula:
Irailaren 1etik 16ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

*Agiri ofiziala
eskura ezazu!*

Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoieibarheo@gmail.com
943899275

eoieibarheo 

www.eoieibarheo.hezkuntza.net

